



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO EKAINAREN 23KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2020ko martxoaren 5eko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorraren plaza betetzeko (2020ko martxoaren 24ko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

*Lehen*a.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere ikusi daiteke (<https://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun baliouduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2020ko ekainaren 23a.

Errektorea

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25koa, errektorearena, 2017/02/03 EHAA).

Izpta.: Inmaculada Guericagoitia Marina
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00077-2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Zelulen Biologia. Saila: Zelulen Biologia eta Histologia. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Hortzetako *stem cell*, *stem cell* neuraletan eta minbizi *stem cell*-etan esperimentazioa" eta "Terapia zelularra gaixotasun neurodegeneratiboetan".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: JOSE RAMON PINEDA MARTI
NAN: ***1945**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez